
DIRU ITURRIAK

Prezio finkoak aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak dira.

Hauen barruan honako hauek daude:

- Zerrendako prezioa: produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoari esaten zaiona da. Makinari jarriko diogun prezioa 9999,95€ izango litzateke.
- Ezaugarrien araberako prezioa: produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberako prezioa da. Esate baterako, makina egiteko plastikoak gutxiago balio du berrerabilia izango ez balitz baino.
- Merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien araberako prezioa: bezero jakin baten profilaren arabera ezartzen den prezioa da. Ditugun kostu eta irabazi nahi dugunaren arabera, hau da, lortu nahi dugun marjinaren arabera, prezioa finkatuko dugu.

Bolumenaren araberako prezioa: prezioa aldatu egiten da, erositako kopuruaren arabera. Gero eta gehiago erosi, produktua orduan eta garestiagoa aterako da.

Bestalde, prezio dinamikoak aldiz, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak dira. Eta hauen barnean hauek aurkitu ditzakegu:

- Marjinaren kudeaketa: inbentarioaren eta erosketa egiteko denboraren araberakoa izango da prezioa. Gure kasuan, prezioa ez da aldatuko jendeak erosten duen epealdiaren arabera.
- Denbora errealeko merkatua: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatzen da prezioa. Burtsak halaxe funtzionatzen du, hain zuzen ere.

Gure kasuan, irabazitako plastikoa (prezio finkoei esker) Green Peace bezalako ONG-ei salduko diegu, honela guk ere irabaziak lotzeko aukera izango dugu (diru sarrerak), eta irabazitako diruaren arabera ekarpen bat egingo dugu urtean behin [WWF](#) ONG-ari emanaz.